

Arizaletako elur-zuloa

Zer da elur-zulo bat?

Elur-zuloei elurtegi edo izoztegi ere deitzen zaie.

Hitz hauek guztiek berdina esan nahi dute.

Gaztelaniaz elur-zuloei nevero esaten zaie.

Elur-zulo bat elurra gordetzeko

lurrean egiten den eraikuntza bat da.

Hau elur-zulo bat da.



Neguan erortzen den elurra

elur-zuloan hartu

eta negu osoan zehar bertan gordetzen da.

Udaberrian eta udan erabiltzeko ateratzen da.



[Irakurketa Erraza](#)

Zertarako erabiltzen zen elur hau?

1. Elikagaiak gordetzeko.

Emakumeek elurra hartu
eta treskatan gordetzen zuten.

Treskak pitxer handiak bezalako ontziak dira.

Treska hauek etxeetako sotoetan gordetzen zituzten
eta elikagaiak mantentzen laguntzen zuten.

2. Erabilera sendagarrietarako.

Elurra erredurak sendatzen laguntzen zuten
prestakinak egiteko erabiltzen zen.

Prestakin horrek arrautza irabiatua,
izotz xehatua eta olio pixka bat zeukan.

Erreduraren gainean jarri
eta azkarrago sendatzen zen.

3. Edariak edan aurretik hozteko
eta izozkiak egiteko.

Elur-zuloak elur asko egiten zuen lekuetan
eta mendien iparraldeko hegaletan jartzen ziren.
Alde batetik ona zen elur-zuloak leku garaietan egotea,
adibidez, mendi baten goialdean,
horrela elurra hobeto kontserbatzen zelako.
Baina oso leku altuetan bazegoen
gero zailagoa zen
elurra beste leku batzuetara eramatea.

Elur-zuloak ia beti publikoak ziren,
hau da, Estatuarenak ziren.
Hozkailu bat eraikitzea eta mantentzea
oso garestia zen eta jendeak ezin zuen ordaindu.

Nor arduratzen zen elur-zuloez?

Pertsona bati elur-zuloak mantentzeagatik eta jendeari eskatzen zuen elur kantitatea eramateagatik ordaintzen zitzaion. Pertsona horrek elurra izan behar zuen herriko bizilagun guztientzat eta elur-eskaerak entregatu behar zituen beharrezkoa zenean.

Jende askok elur-eskaerak egiten zituen. Pertsona batek eskaera bat egiten zuenean elurra animalietan eramaten zioten, adibidez, asto edo zaldietan. Elurra gauez eramaten zuten horrela elurra ez zelako desegiten.

la beti gizonek lanik gogorrena egiten zuten, hau da, elur-zuloak elurrez betetzea. Baina batzuetan emakumeek lan honetan ere parte hartzen zuten.

Zer egiten zuten emakumeek elur-zuloetan?

- Elurra elur-zuloetako sarreraraino eramaten zuten.
- Sarreran arranpa batean bihurtzen zen egurrezko taula bat jartzen zuten horrela elurra elur-zuloan errazago sartzeko.
- Elurra lurrarekin kontaktuan egon ez zedin elur-zuloaren oinarria adar eta hostoekin estaltzen zuten. Horrela drainatzea hobe egiten zen, hau da, lurretik soberan dagoen ura ateratzea. Elur-zuloaren paretak ere estaltzen zituzten bertara beroa ez heltzeko
- Adar eta hostoen gainean elur kapa bat jartzen zuten eta honen gainean lastozko kapa bat. Hau behin eta berriz egiten zuten elur-zuloa bete arte. Horrela elurra negu osoan zehar hobe kontserbatzen zen.


Nolako da Arizaletako elur-zuloa?

Hau Arizaletako elur-zuloa da.



Elur-zulo honek forma eliptikoa du,
hau da, elipse baten forma du.

Hau elipse forma bat da.



Ez dakigu noiz eraiki zuten zehazki
baina Nafarroako ia elur-zulo guztiak
XVI. eta XVIII. mendearen artean eraiki zituzten,
hau da, 16. eta 18. Mendeen artean.

Elur-zuloak neurri hauek ditu:

- 4 metro baino pixka bat gehiagoko altuera,
hau da, solairu bateko irakin batek
baino pixka bat gutxiago.

6

- Barrutik 5 metro eta erdi baino pixa bat gehiagoko altuera du eta 5 metro eta erdi baino pixka bat gutxiagoko zabalera du.

Kontuz, mezu hau garrantzitsua da.

Garrantzitsua da

segurtasun harresia ez igarotzea.

Garrantzitsua da ere elur-zuloan ez sartzea.

Oso arriskutsua da eta barrura eror zaitezke.

